

Prentsa-oharra

IK4-TEKNIKERek eta NUPEk ingeniartzako ikasketak berriki bukatu dituzten ikasleen lan merkaturako sarrera errazteko bat egin dute

- ▶▶ *Zentro teknologikoak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) Eibarren, gaur, hezkuntzan lankidetzaz sustatzeko elkarlanerako esparru-akordio bat sinatu dute*
- ▶▶ *Ikasleek haien espezializazioa sustatuz jarduera profesionalerako beharrezkoak dituzten gaitasunak lortu ahalko dituzte IK4-TEKNIKEReko instalazioetan*
- ▶▶ *Eibarko zentroa NUPEkin hainbat eratan arituko da elkarlanean, berriki titulua lortu duten gazteek, beste batzuen artean, egonaldiak eta praktikak, edo doktoretzak, egin ditzaten*

(Eibar, 2016eko uztailaren 19a).- Mundu akademikoa eta enpresa munduaren arteko loturak estutzeko asmoz, [IK4-TEKNIKER](#) zentro teknologikoak eta [Nafarroako Unibertsitate Publikoak \(NUP\)](#), gaur goizean, amankomunean dituzten interesetan, hau da, ikasleak lan mundura sartzea, ezagutza zientifiko eta teknologikoa sortzea eta sektore pribatura pasatzeko sakontzeko esparru-akordioa sinatu dute.

Akordioa, Eibarren, zentro teknologikoaren egoitzan sinatu dute eta ingeniartzako titulazio ezberdinetako ikasleak lan mundu profesionalean sartzen lagunduko dituzten formula ezberdinak martxan jartzea aurreikusten du.

Besteak beste, NUPEko Industria eta Telekomunikazio Ingeñariaren Goi Eskola Teknikoko graduoko eta graduondoko ikasleek haien praktikak eta haien prestakuntza akademikoak egin ahalko dituzte, beste ikergai batzuen artean, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

(IKT), fabrikazio aurreratua, gainazalen funtzionalak eta produktu-ingeniaritza ardatz dituen zentro teknologikoaren egoitzetan.

Horrela, ikasleek, haien ekintzailtza gaitasuna indartzen duten bitartean, jarduera profesionalerako beharrezkoak dituzten gaitasunak eskura ditzakete.

IK4-TEKNIKEReko zuzendari nagusiak, Alejandro Bengoak, eta NUPeko errektoreak, Alfonso Carlosenak, sinatu dute hitzarmena. Hitzarmenak, ikertzaile gazteek haien doktoretzak egiteko bide berriak aurkitzea, bi erakundeetan doktoretza-ikasle nazional eta nazioartekoen harrera sustatzea eta IK4-TEKNIKEReko doktoreak NUPeko doktoretza tesiko epaimahaietara gehitzeko aukera aztertzea ahalbidetuko du.

Gainera, akordioa behar berriak identifikatu eta aurrea hartzea baimentzen duten ikerkuntzan parte hartzen duten pertsona ezberdinen arteko komunikazio-kanalak ezartzeko diseinatuta dago.

Graduondoko programetan elkarlana eta programa horien ikasgaien edukiak garatzeko lankidetzaren ere barne hartzen ditu.

I+G eta doktoretzarako hitzartutako akordioak

Mugagabea den itunean, IK4-TEKNIKERek ikasleen gaitasunen garapena norabideratu, ikuskatu eta kontrolatzeko eta haien prestakuntza jarduerak gauzatzeko beharrezko baliabideak bermatzeko konpromisoa hartu du.

Elkarlanak, era berean, NUPeko I+G eta doktoretza estrategiak indartuko dituzten kideen bilaketa sustatzea du helburu.

Gero eta lehiakorragoa eta nazioartekotuagoa den gizarte honetan, bi erakundeek dakite, irakaskuntza, hezkuntza, zientzia eta teknologia gisako esparruetan behar berriak daudela, eta testuinguru honetan, elkarlana oso garrantzitsua dela.

Horregatik, IK4-TEKNIKER eta NUPek aukerak identifikatu, erronkei aurre egin eta agertoki berriei aurre hartzea baimenduko dieten sinergiak bilatzeko konpromisoa hartu dute.

IK4-TEKNIKERi buruz

IK4-TEKNIKERek 30 urtetik gorako esperientzia du teknologia aplikatuan eta teknologia hori enpresara transferitzen, eta espezializazio-maila handia lortu du lau alor handitan (fabrikazio

aurreratua, gainazal-ingeniaritza, produktu-ingeniaritza eta IKTak). Horri esker, gaitasuna du bere abangoardiako teknologia bezeroen beharren zerbitzura jartzeko.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren (NUP) inguruan

1987. urtean Nafarroako Parlamentuak sortua, irakaskuntza, ikerketa eta transferentzia alorretan Espainiako unibertsitateen artean, lehenengo postuetan ageri da, izan ere, sailkapenean, Espainiako beste 7 unibertsitate publikorekin batera, produktibitate globalaren alorrean lehenengo herenean kokatzen baita.

Haren jarduera akademikoa giza eta gizarte zientziak, osasun zientziak eta ingeniaritza adarretan garatzen da. Hein handi batean, nolakotasun politeknikoa duen unibertsitatea da.